

MOTX ETA POTX: ZULOA ALA MUINOA



LIBURUAREN FITXA

PFISTER, Marcus. *Motx eta Potx: zuloa ala muinoa*. Alberdania, 2006

Aurkezpena

Gauzak partekatzea ia ezinezkoa zaie haurrei. Kostata uzten dizkiete lagunei beraien gauzak, lan bat burutzeko besteen ideiak nekez onartzen dituzte halaber. Ezina hori agertzen da ipuin honetan, baita bi protagonisten garapena ere elkarren arteko bidea eraikitzeko.

Kontaketa

- Bost urtetik gora erabili daiteke ipuin hau; adin hau baino lehenago, nekez jabetuko dira haurrak elkarrekin aritzearen abantailaz.
- Irakurketa zuzena erabili daiteke kasu honetan, ilustrazioen laguntza erabiltzen delarik; hauek ezin hobeak suertatzen dira istorioa ulertzeko.
- Proposamen bat egin irakurketaren ondoren eta proposamen hori bideratzeko proiektu bat osatu hurrekin batera.

Aukerako proposamenak

- Ekimen kolektibo bat burutzea proposatu.
- Proiektua hurrekin batera definitu: zer egingo duten, noiz eta nola.
- Taldeak nola osatuko dituzten, eta taldetako ardurak nola banatu.

Proposamenak zehazten

- Eraikin baten piezak erabili eta bi lagun artean dorre luze bat osatu.
- Talde bakoitza dorrea erori arte arituko da.